

Erf.: Kale salmentako araudiaren aldaketari alegazioak
Tx.: 2016/29

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Kale Salmentaren araudia aldaketaren hasierako onespenerari Cándido Galindo Santiago jaunak, Asociación de Vendedores Ambulantes de Bizkaia alkartearen izenean aurkeztutako alegazioak.

Nork eskatu dauen txostena

Zerbitzu sailak.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2016ko otsailaren 25eko Osoko Bilkureak, Kale Salmenta araudiaren aldaketa hasikeraz onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Onarpenaren iragarkia 2016ko apirilaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Hirugarrena: 2016ko apirilaren 22an, Asociación de Vendedores Ambulantes de Bizkaia alkarreak, alegazioak aurkeztu ahal izateko informazioa eskatu eban.

Laugarrena: 2016ko maiatzaren 4an, espedientearen itzulpen eskaria egin eban aitatutako alkarreak.

Bosgarrena: Informazioa bialdu jakenean, alegazioak aurkezteko 22 eguneko epea geratzen jakela jakinarazo jaken 2016ko maiatzaren 6ko Dekretu bidez.

Seigarrena: 2016ko ekainaren 1ean, Cándido Galindo Santiago jaunak, Asociación de Vendedores Ambulantes de Bizkaia alkartearen izenean, alegazioak aurkeztu ebazan.

Argudioak

Lehenengoa: Aurkeztutako alegazioetako idaztian jasotako lehenengo argudioa honakoa da: Ordenantzan aitatzen dan legea 7/1994 Legea dala eta lege hori 7/2008 Legearen bidez aldatu zala.

Horren aurrean esan beharra dago Ordenantzan bertan adierazoten dala 7/1994 Legea eta bere aldaketak hartzen dirala oinarritzat. Hori horrela, 7/1994 Legeari egindako aldaketa guztiak kontutan hartzen dira, 7/2008 Legearen ondorioz egondakoak barne.

Beraz, alegazio horrek ez dauka ezelako eraginik Ordenantzaren testuan.

Bigarrena: Bigarren alegazio moduan aitatzen dau onartu dana eta Ordenantzan jasota dagoena ez datozela bat, berba batzuk aldatu egiten diralako.

Kontuta eduki behar da oinarritzat hartu daben testua erabagiaren itzulpen bat dala eta, horren ondorioz, berba batzuen artean aldaketa dagoela, zentzua aldatzen ez dabenak (perímetro urbano exceptuado edo eximido).

Hori horrela, gogorarazo behar da jatorrizko testua eta balio daukana zalantza kasuetan euskerazkoa dala.

Dana dan argitu behar da ezbardintasun horreek agertu diran kasutan, behin betiko testuan agertuko diran berbak Ordenantzan agertzen diranak izango dirala, eta ez itzulpenean agertzen diranak (perímetro exceptuado).

Ondorioz, alegazio horrek ez dau ezelako aldaketarik suposatzen Ordenantzaren testuan.

Hirugarrena: Salbuetsitako perimetroari jagokonez, azokatxoko saltzaileen ordezkariari kontsultatu beharra dagoela eta halan egiteko eskatzen dabe.

Hori argudiatzeko Ordenantzaren artikulua bi aitatzen dira (26.2 eta 10.3). Baina artikulua horreek irakurrita, ikusi daike ez dinoela kasu zehatz horretan kontsultatu beharra dagoenik (10.3: "Feria eta jaietan egingo diran edota udalerriko saltzaile eta kontsumitzaile alkaterei Udalak audientzia emon ondoren eta ohiko aldizkako azokak ere debeku honetatik kanpo geratzen dira". 26.2: "Aldizkako azoketan, azokako saltokietako titularren artean demokratikoki aukeratutako Ordezkaritza Batzordea eratuko da, hiru kide izango dau gitxienez eta bost gehienez. Batzorde horretan, azokan saltzen diran produkturik gehienak ordezkaturik egoteko ahalegina egingo da. Azokako Ordezkarien Batzordeak haren bozeroale modura jardungo dau Udalaren aurrean, legokezan arazoei konponbide bat emon ahal izateko).

Beraz, ez da derrigorrezkoa kontsultarik egitea salbuetsitako perimetroaren ganeko erabagiak hartzeko.

Laugarrena: 7/1994 Legearen 17. Artikulua aldaketan, salbuetsitako uri perimetroa, derrigorrezkoa izatetik aukerazkoa izatera pasatzen dala adierazoten da eta, arrazoiak, urigintzakoak, ingurumenekoak edo irisgarritasunekoak izango dirala.

Gure kasuan Udal Ordenantzak eduki dau jadanik salbuetsitako uri perimetro bat. Ez da barri bat aurreikusten dala, baizik eta aldatu egiten dala eta aldaketa horren arabera, salbuetsitako perimetro murriztu egiten dala.

Hori dala eta, eskubideak edo aukerak murriztu barik, zabaldu edo handiagotu egiten dira. Beraz, ez dago ezelako kalterik edo urratzerik kale saltzaileen eskubideetan.

Bosgarrena: Azkenik, 23. artikuluan paragrafo bat gehitzeko eskatzen dabe, azokatxoaren kasuan emoten diran lizentziak 10 urteko iraupena eukiko dabela zehazteko eta lizentzien barriztapena zelan egingo dan zehazteko.

Horren aurrean esan beharra dago ez dala ezelako arazorik ikusten lehen zatia txertatzeko, hau da, azokatxoaren kasuan emoten diran lizentziak 10 urteko iraupena eukiko dabela.

Barriztapenen kasuan, aldiz, esan behar dogu ez dala legezkoa, 2013ko urriaren 31ko Osoko Bilkureak hasikeraz onartutako Kale Salmentako araudiaren aldaketaren aurrean alkarte bardinak egindako alegazinoen aurrean emondako 2014ko maiatzaren 7ko txosten juridikoan esaten zan moduan:

“(…) 1/2010 Legea hartzen dabe oinarritzat, Estatu mailako Legea dana eta Lege horren arabera, baimenak mugatuak diran heinean, ezin dirala denboran mugagabeak izan eta, baimenak emoteko jarraitu beharreko prozedurak gardentasuna, inpartzialtasuna eta publizitatea bermatu behar dauzala xedatzen dau.

Modu berean dino prozedurak ezingo dauala barriztatze automatiko bat suposatu eta ez dauala ezelako abantailarik suposatuko ordura arte dauzenentzat”.

Hori horrela, 23. artikuluan proposatutako lehenengo paragrafoa txertatu leike udal korporazioak egoki erixten badau, baina ez bigarren paragrafoa, ezlegezkoa dalako.

Konklusinoa: Egoki erixten bada 23. artikuluan alkarteak eskatutako lehenengo paragrafoa txertatzea proposatzen da eta beste alegazino guztiak ez onartzea.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko ekainaren 10ean

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria